

# ESKURA

GUILLERMO ROA ZUBIA  
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

## dagoen zientziaren kronika

**F**rank R. Wilson dagoeneko jubilatuta dago, eta Kaliforniako Unibertsitatea utzi du. Neurologo ospetsua da, eta, unibertsitatean egindako lanaz gain, dibulgazioan ere aritu da. Eta bietan, ikerketan eta dibulgazio-lanetan, Wilsonen gaia besoaren muturrean dugun gorputz-atala da: eskua. Hain zuzen ere, haren web-orrian (<http://handoc.com/Bio.html>) sartzen denak honako mezu hau jasotzen du lehen pantailan: “Eskuak interesatzen? Egin klik hemen sartzeko”.

Horregatik, gomendatzeko modukoa da Wilsonen liburu ezagunena: *The Hand* (*La mano*, gaztelaniazko argitalpenean). Eskuari buruzko liburu oso bat, baliteke? Baietz erakutsi du Wilsonek, 350 orrialde baino gehiagoko liburu batean. Luze eta zabal idatz daiteke eskuari buruz, besteak beste, gizakiak egin eta egiten duen ia guztiarekin duelako zerikusia. Tankera horretakoa da liburuaren azpiztitulua: “Eskuaren erabilerak nola konfiguratu dituen giza garuna, hizkuntza eta kultura”.

Eskuaren fisionomiari buruzko dibulgazio-liburua da; ez da adituentzako testu-liburu bat. Hitzaurrean azaltzen du goizean goiz eskuaren jarduerak aktibatzen digula gorputza, eta egunean zehar dituen erabilpenei begiratu egiten die. Hortik aurrera, planteamendu erabat orjinala duen testu bat abiatzen da.

Eboluzioaz, biomekanikaz, neurologiaz, fisikaz eta zientziaren beste esparru askoz hitz egiten du, bestelako kontuak erabilia: txotxongiloak, musikariak, garabi-gidarien lana, autoen mekanika eta abar. Gai horien aipamenak, kasu batzuetan, eskuen funtzionamendua azaltzeko tresnak dira, eta, beste batzuetan, eskuarekin zuzenean lotutako jarduerak.

Bide horretatik, aspaldian sortu zen teoria bat aztertzen du Wilsonek: gizaki egiten gaitueneren zati handi bat eskuen jardueraren ekarpena da. Antropologia eta beste zientzia asko elkar-tzen ditu eskuak, eta Wilsonek gizakiaren izaerari buruzko gogoeta egiteko erabiltzen ditu.

Liburua oso ondo dokumentatuta dago. Wilsonen esperientzia pertsonalak eta profesionalak ohiko informazio zientifikoarekin bateratzen ditu, eta emaitza oso testu irakurteraza da. ●



i

### La Mano

Frank R. Wilson

Tusquets editores

225 x 150 mm

ISBN: 84-8310-828-3

Jatorrizko izenburua:

*The Hand*